



2002/09/06ko prentsa-oharra

ESTABLEZIMENDU TURISTIKO HARTZAILEEN INKESTA (ETHI)2002ko uztaila

BIDAIARIEN SARRERAK % 8 GEHITU DIRA 2002KO UZTAILEAN

Gaualdiak % 5 gehitu dira aurreko urteko hil beraren aldean.

2002ko uztailan, 152.440 bidaiari-sarrera erregistratu dira Euskal AEko hotel-establezimenduetan, aurreko urteko hil berean baino ia 11.000 sarrera gehiago, hau da, % 8ko gehikuntza, Eustatek eskainitako datuen arabera. Hiru herrialdeetan gehitu dira bidaiarien sarrerak: Bizkaian % 9, Gipuzkoan % 8 eta Araban % 6.

Estatutik datozen bidaiarien sarrerak % 13 igo dira, hots, atzerriko bidaiarien kopuruak izan duen gehikuntzaren (% 2) gainetik. Estatutik datozen bidaiarien kopurua igo egin da hiru herrialdeetan: % 6 Araban, % 10 Bizkaian eta % 18 Gipuzkoan. Eta atzerriko bidaiariak % 7 gehitu dira Araban eta % 9 Bizkaian; Gipuzkoan, berriz, % 4 urritu dira.

Estatutik datozen bidaiarien artean, nabarmen gehitu dira Madrildik eta Andaluziatik datozenak, bai eta Euskal AEtik beretik eta Nafarroatik datozenak ere. Pixka bat gutxitu dira, besteak beste, Kataluniatik, Asturiastik eta Murtziatik etorriak. Atzerriko bidaiarien artean, aipatzekoa da Frantziatik, Alemaniatik, Italiatik eta Erresuma Batutik datozen bisitariak izan duten gehikuntza, bai eta AEB-Kanadatik, Iberoamerikatik eta Portugaldik datozenen gutxitzea ere.

2002ko uztailan, 286.551 gaualdi erregistratu dira. Horrenbestez, aurreko urteko aldi berean baino ia 13.000 gehiago izan dira, hau da, % 5 gehitu dira ehuneko-balioetan. Egindako gaualdien kopuruak % 9ko hazkundera izan du Bizkaian, eta % 3koa Araban eta Gipuzkoan.

Euskal AEko hoteletan ostatu hartu duten bidaiarien batez besteko egonaldia laburtu egin da 2002ko uztailan; iaz 1,94 egunekoa zen, eta 1,88 egunekoa da aurtengo uztailan.

Plazen betetze-maila aurreko urtekoa bera da Euskal AE osorako, eta gela betetze-maila % 1 igo da Euskal AE osorako.

Nekazalturismoa: gehitu egin dira bidaiarien sarrerak (% 21) eta gualdiak (% 9)

Euskal AEko nekazalturismoko establezimenduetan, 9.839 bidaiari-sarrera zenbatu dira 2002ko uztailean, aurreko urtean baino % 21 gehiago: % 29 ugaritu dira Gipuzkoan, % 20 Bizkaian; eta % 1 urritu dira Araban.

Egindako gualdiak 28.101 izan dira, hau da, 2001eko uztailean baino % 9 gehiago, eta hori Euskal AEko hiru herrialdeetan gertatu da: Araban (% 30), Gipuzkoan (% 10) eta Bizkaian (% 2).

Batez besteko egonaldia % 10 laburtu da Euskal AE osoan. Araban % 32 luzatu da, eta Bizkaian eta Gipuzkoan % 15 eta % 14 laburtu, hurrenez hurren.

Argibide gehiagorako:

	Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística Donostia-San Sebastián, 1. 01010 Vitoria-Gasteiz Tel.: +34-945 017 500 Faxa: +34-945 017 501 E-maila: eustat@eustat.es Harremanetarako pertsona: Gerardo Pérez Tel.: +34-945 017 506 Faxa: +34-945 017 501 Prentsa-oharrak Interneten: www.eustat.es
---	--

1. taula: hileko emaitzak

EUSKAL AE						ARABA/ALAVA						BIZKAIA						GIPUZKOA					
07/2002	%	07/2001	%	D%		07/2002	%	07/2001	%	D%		07/2002	%	07/2001	%	D%		07/2002	%	07/2001	%	D%	

HOTEL ESTABLEZIMENDUAK

BIDAIARIEN SARRERA	152.440	100	141.101	100	8	26.757	100	25.176	100	6	53.122	100	48.576	100	9	72.561	100	67.349	100	8
Estatukoak	93.835	62	83.377	59	13	18.908	71	17.850	71	6	32.818	62	29.872	61	10	42.109	58	35.655	53	18
Atzerrikoak	58.605	38	57.724	41	2	7.849	29	7.326	29	7	20.304	38	18.704	39	9	30.452	42	31.694	47	-4
GAUALDIAK	286.551	100	273.132	100	5	47.786	100	46.510	100	3	98.632	100	90.801	100	9	140.133	100	135.821	100	3
Estatukoak	177.751	62	159.441	58	11	33.492	70	33.416	72	0	59.849	61	53.808	59	11	84.410	60	72.217	53	17
Atzerrikoak	108.800	38	113.691	42	-4	14.294	30	13.094	28	9	38.783	39	36.993	41	5	55.723	40	63.604	47	-12
BATEZ BESTEKO EGONALDIA	1,88		1,94		-3	1,79		1,85		-3	1,86		1,87		-1	1,93		2,02		-4
PLAZAKO BETETZE MAILA	52,86		52,96		0	56,71		56,81		0	45,61		44,27		3	58,01		59,36		-2

NEKAZALTURISMOA

BIDAIARIEN SARRERA	9.839	100	8.142	100	21	1.308	100	1.316	100	-1	3.470	100	2.894	100	20	5.061	100	3.932	100	29
Estatukoak	8.220	84	6.638	82	24	1.248	95	1.111	84	12	2.632	76	2.108	73	25	4.340	86	3.419	87	27
Atzerrikoak	1.619	16	1.504	18	8	60	5	205	16	-71	838	24	786	27	7	721	14	513	13	41
GAUALDIAK	28.101	100	25.771	100	9	3.265	100	2.506	100	30	9.872	100	9.676	100	2	14.964	100	13.589	100	10
Estatukoak	22.930	82	18.833	73	22	3.097	95	2.131	85	45	7.206	73	6.146	64	17	12.627	84	10.556	78	20
Atzerrikoak	5.171	18	6.938	27	-25	168	5	375	15	-55	2.666	27	3.530	36	-24	2.337	16	3.033	22	-23
BATEZ BESTEKO EGONALDIA	2,86		3,17		-10	2,50		1,90		32	2,84		3,34		-15	2,96		3,46		-14
PLAZAKO BETETZE MAILA	42,60		43,87		-3	27,72		23,71		17	46,35		53,17		-13	45,50		45,33		0

Iturria: EUSTAT